



Usurbilgo Udala



TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2014KO OTSAILAREN 25EAN
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK:

Alkatea: Mertxe Aizpurua Arzallus.

Zinegotziak: Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

Idazkaria: Nagore Sarasola Otermin.

Ezinetorria adierazi dute: Jose Maria Rivadeneyra Siciliak eta Josu Portu Alzagak.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2014/02/11KO OHIKO BILKURA.

Batzarkideek, 2014ko otsailaren 11ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ARISUTAGO, S.L. ENPRESAREN ORDEZKARITZAN DIHARDUEN MANUEL IBAÑEZ FERNANDEZ JAUNAK, IGARAKO GAZTANBIDE ERREKAKO ZUBIA HAUNDITZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Espediente zenbakia: HZ.04/2013-0237

ARISUTAGO, S.L. enpresaren ordezkartzan diharduen MANUEL IBAÑEZ FERNÁNDEZ jaunak, Igarako Gaztanbide erreka zubi haunditzeko udal baimena eskatu du.

2013ko maiatzaren 24an, aurkeztutako eskaera eta proiektua aztertu ostean, udal arkitektoak, Ekhiñe Eiguren Azkune andereak, ondoko txostena eman du:

EE2013_04_019

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate andreari
OBRA HAUNDIAK
IGARAKO KANPINERAKO SARBIDEA HOBETZEKO GAZTANBIDE
ERREKAKO ZUBIA ZALBATZEKO TXOSTENA

KOKAPENA: Igarako bidea, Usurbil

ESKAERA DATA: 2013ko maiatzaren 24a

ESKATZAILEA: Manuel Ibañez Fernandez, ARISUTAGO S.L- ren izenean

ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ04/2013-0237

PROIEKTUAREN AURREKONTUA: **25.170,04 euro (PEM)**



Usurbilgo Udala

AURREKARIAK

- 2013ko maiatzaren 24an Manuel Ibañez Fernandez jaunak, ARISUTAGO S.L.-ren izenean, baimena eskatu du Usurbilgo Igarako bidean dagoen zubia zabaltzeko.

Erlazionatuak: HZ.13/2011-0483

- 2011-10-14: Igarako bidean dagoen zubia zabaltzeko hirigintza kontsulta.
- 2012-02-08: Hirigintza Kontsultari erantzuna 2012/0125 Alkatearen Dekretu bidez, non honakoa ondorioztatzen zen:
“URA Ur Agentziak ezarritako zubiaren handitze aukera onargarria izan liteke, beti ere, Obra baimena lortzeko goian aipatutako baldintzak betetzen diren artean.” Aipatu baldintzak zirelarik:
 - “UR AGENTZIAREN BALDINTZEN BETETZEA; Zubiaren handitze aukera onargarria izan dadin, beti ere URA Ur Agentziaren baldintza izan beharko du eta beraz, URA-ren eskaerak justifikatu beharko du zubiaren handitzea.
 - USURBILGO ARAU SUBSIDIARIOAK; Ezinbestean bete beharko dira Arau Subsidiarioetan ezarritakoak, 71. artikuluan ezartzen dena, besteren artean ;
 - “71. artikulua; (...) Ibilgunetako uraren joan-etorrian nolabaiteko aldaketa eragin dezaketean jardueri ekin aurretik (betelanak, zubiak eta abar.) jarduera horien ondorio hidraulikoak eta ingurumen arlokoak aztertu beharko dira, eta Ur Zuzendaritzan tramitatu ondoren, arauzko baimenak lortu beharko dira.”
 - BIODIBERTSITATEA ETA NATUR-BALIABIDEAK; Usurbilgo Arau Subsidiarioen Testu Bateraginaren 1.4. planuan zehazten den bezala, interbentzioa proposatzen den lekua “Interes naturalistikoko guneen ertzak” bezala bereizita dago eta horrekin batera “Hegoaldeko zuhaitz-igela ugalketa leku berriak” topatzen dira bertan. Hau dela-eta, ezinbestean aztertu beharko da zubiaren handitzeak izan dezakeen ingurumen-inpaktua eta horrek baldintzatuko du, besteren artean, interbentzioaren bideragarritasuna. Gaiaren inguruan Usurbilgo Arau Subsidiarioen Testu Bateraginak ezarritako bete beharko da, besteren artean, 57. artikulua.
 - OBRA BAIMENA; Beharrezkoa izango da, beste organu eskudunen baimenekin batera, zubia egiteko obra baimena jasotzea, horretarako dagokion Proiektu teknikoak aurkeztu beharko da teknikari gaituak izenpetua eta Elkargo Profesionalak ikus-onetsia. Obrak interesatuak sustatu beharko ditu.
 - ALBOKO LURRETAN ERAGINA ETA GAINONTZEKO OBRAK; Obrak zubiaren handitzera soilik egon beharko dute bideratuak eta ez dute beste obrarik barneratuko (hau da; alboko lurren aldaketak, beste eraikuntza batzuk, e.a.).
 - BIDEAREN EGOKITZEA; Zubiaren handitze/zabaltzearekin batera, jarraiko bidea zabalera horretara egokitu beharko da eta egokitze lanak interesatuak egin beharko ditu, proiektu teknikoan barneratuta joan beharko dutelarik.”



Usurbilgo Udala

- Oharra: interesatuak eskaera orrian esaten duenez: "(...) se desea realizar un Camping de primera categoría conforme a las normas de la Consejería de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en los terrenos donde se ubicaba el antiguo Club de Tenis Igara. Para lo cual, **el Ayuntamiento de Donostia –San Sebastian concedió Licencia de Ejecución en fecha 17 04 2013.**"

TXOSTENA

Manuel Ibañez Fernandez jaunak, ARISUTAGO S.L. enpresaren izenean, baimen eskaera egin du, Usurbilgo lurretan Donostiako Igarara doan bidean zubia handitzeko. Horretarako aurkeztu dokumentazioa da; eskaera orria eta proiektua. Azken honek barneratzen dituenak dira; planuak, memoria, topografia eta zuinketa, lurren okupazioa, Kalitatearen Kontrolerako egitasmoa, Segurtasun eta Osasun Aztelan Oinarrikoza, Baldintza Plegua, Hondakinen Kudeaketarako Azterlana, Justifikazio hidraulikoa eta Aurrekontua. Guztiak teknikari gaituak izenpetuak (bide eta ubide ingeniaria) eta dagokion Elkargo Profesionalak ikus-onetsiak (CICCP 2013-04-25).

ARISUTAGO S.L.-k orainartean idatziz azaldu duenez, enpresaren asmoa da Donostiako Igara auzoan lehen mailako kanpina sustatzea/egikaritzea. Horretarako Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailak sarrera bidearen gutxieneko neurriak ezartzen ditu. Horiek betetzeko beharrezkoa dute aipatu zubiaren zabaltzea 5,00 m-raino. Aurkeztu proiektuaren memorian 6. puntuari esaten da: "El actual puente se amplía a ambos lados, prácticamente a aptes iguales, hasta conseguir un vial de 5 m de ancho. Para cortar el paso el menor tiempo posible se decide mantener el tablero existente demoliéndose únicamente las vigas laterales que hacen de petril".

Eskuhartzea proposatzen den zubia, Usurbilgo Arau Subsidiarioen arabera, lurzoru ez-urbanizagarrian kokatzen da, "baso autoktonoen babeseko lurzoru ez-urbanizagarria" hain zuzen ere.

Aurkeztu Proiektua aztertu ostean, honakoa esan daiteke:

- **ONDARE KATALOGATUA;** Eskuhartzea proposatzen den zubia, Usurbilgo Arau Subsidiarioen arabera, ez da ondare katalogatuen zerrendan azaltzen eta beraz, ez dira aplikagarriak Hirigintzako Ondare Katalogatuaren Babespen Arauak.
- **URA Ur Agentzia-REN BAIMENA:** Usurbilgo Arau Subsidiarioek honakoa ezartzen dute: "71. artikulua; (...) Ibilgunetako uraren joan-etorrian nolabaiteko aldaketa eragin dezaketen jardueren ekin aurretik (betelanak, zubiak eta abar.) jarduera horien ondorio hidraulikoak eta ingurumen arlokoak aztertu beharko dira, eta Ur Zuzendaritzan tramitatu ondoren, arauzko baimenak lortu beharko dira." Beraz, ezinbestean URA Ur Agentziaren baimena lortu beharko da.



Usurbilgo Udala

- **INDARREAN DEN ARAUDIAREN BETETZEA:** Edonola, **bai egikaritza proiektuak eta baita obralanek ere, indarrean den araudia bete beharko dute ezinbestean.**
- **OBREN EGIKARITZAK EREMUAN SOR DEZAKEEN ERAGINA:** **Beti ere, inguruneko baldintzak errespetatu eta mantendu beharko dira, eta kalterik sortuz gero, egoera leheneratu beharko du obren eragileak, kostuak bere gain hartuaz, ezinbestean.**
- **LURREN OKUPAZIOA:** lursail publikoen okupaziorako dagokion baimena lortu beharko da (udal aparejadorea) eta gainontzean, lursail pribatuak balira ohartarazten da, 2/2006 Lurzoruaren Legearen 211. artikuluari jarraituz; *“Lizentziak, beti, jabetze-eskubidea kontuan izan gabe eta hirugarrenei kalterik eragin gabe emango dira.”*
- **INGURUMEN TEKNIKARIAREN TXOSTENA:** Usurbilgo Arau Subsidiarioen Testu Bateraginaren 1.4. planuan zehazten den bezala, interbentzioa proposatzen den lekua *“Interes naturalistikoko guneen ertzak”* bezala bereizia dago eta horrekin batera *“Hegoaldeko zuhaitz-igela ugalketa leku berriak”* topatzen dira bertan (edo oso hurbil). Gai hauen guztien inguruan, **Ingurumen teknikariaren txostenera bideratzen da eta ohartarazten da, ezinbestean, Usurbilgo Arau Subsidiarioen Testu Bateraginak ezarritako bete beharko dela, besteren artean, 57. artikulua.**
- **UDALTZAINGOAREN TXOSTENA.** Obrak dirauten artean, **trafikoaren desbideratzea proposatzen da proiektuan. Horren inguruan, Udaltzaingoaren txostenera bideratzen da.**
- **APAREJADOREAREN TXOSTENA:** Zubiaren zabaltzea dela-eta, herri-bidearen egokitzapena barneratzen du proiektuak, hura ere zabalduz. Horrela dio memoriaren 6.5. puntuak, *“La ampliación del puente requiere la adaptación del camino a la nueva anchura. Esto requiere ejecutar nuevo firme en ciertas zonas”.* **Horren inguruan, udal aparejadore eta zerbitzuetako buruaren txostenera bideratzen da.**
- **OBREN HASERA ETA ZUINKETA AKTA:** Behin udal baimena jaso eta obren egikaritza hasteko, beharrezkoa izango da udal aparejadorearekin zuinketa akta izenpetzea.
- **OBRA BAIMENAREN EPEAK:**
- Obren hasera epe gehienekoak: **obra baimena jasotzen denetik 6 hilabete.**
- Obrak geldituta egon daitezkeen epe gehienekoa: **6 hilabete.**
- Obrak amaitzeko epe gehienekoa: **zuinketa akta izenpetzen denetik urtebeteko epea:**
- **OBREN AMAIERA:** **Obra amaitu eta erabileran ezarri aurretik, Udalean aurkeztu beharko dira egikaritutako obrak jasotzeko udal baimenera egokitzen direla ziurtatzen duen Obra Zuzendaritzaren ziurtagiria, teknikari gaituak izenpetua eta dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia. Orohar, Usurbilgo Arau Subsidiarioen 31. artikuluan ezartzen direnak.**



Usurbilgo Udala



ONDORIOAK;

Udal baimena lortzeko, ezinbestean, goian aipatu baldintzak bete beharko dira.

Hau da esan behar nuena.

Usurbilen, 2013ko uztailaren 17an.
UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune

Udal aparejadoreak, Felix Aizpurua Arzallus jaunak, 2013ko irailaren 2an, udal zerbitzuei dagokionez, eragindako eremuan instalaziorik ez dagoela adierazi du.

Udaltzaingoak bere aldetik ondoko idatzia helarazi du 2013ko irailaren 3an:

Espediente zkia: HZ,04/2013-0237

Gaia: Igarako kanpinerako sarbidea hobetzeko Gaztanbide erreka zubi zabaldu behar dela eta, obragatik trafikoari eragiten dionaren txostena.

Aipatzen den zubi trafikoari ixtea Herriko-etxe baserriari bakarrik eragiten dio. Baserri honek bi sarbide ditu: bat, Bentazikin aldetik eta bestea aipatutako zubi pasa ondoren hobeita bost metrora dagoen lekutik.

Nahiz eta Gaztanbide erreka zubi itxi, Errikoetxeok bestaldetik ez daukate arazorik sartu eta atera egiteko.

Obrakoek adierazi didanez beraiekin harremanetan jarriak dira eta mozten dutenean abisua pasatzekotan geratu omen ziren.

Eta jakinaren gainean egotearren eta dagozkion ondorioetarako adierazten zaizue, Usurbilen 2013ko irailaren 3an.

Nekazaritza eta Ingurumen Teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak, hala eskatuta, interesatuak ingurumenari dagokion dokumentazio osagarria aurkeztu du 2013ko urriaren 7an, 3452 sarrera zenbakia daraman idatziarekin batera. Proiektua eta dokumentazio hau aurkeztu ostean, Nekazaritza eta Ingurumen Teknikariak ondoko txostena eman du:

EE2014_04_01

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate andreari
OBRA HAUNDIAK
IGARAKO KANPINERAKO SARBIDEA HOBETZEKO GAZTANBIDE
ERREKAKO ZUBIA ZALBATZEKO TXOSTENA

KOKAPENA: Igarako bidea, Usurbil



Usurbilgo Udala



ESKAERA DATA: 2013ko maiatzaren 24a

ESKATZAILEA: Manuel Ibáñez Fernandez, ARISUTAGO S.L- ren izenean

ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ04/2013-0237

PROIEKTUAREN AURREKONTUA: 25.170,04 € + 1.293,80 € (PEM)

AURREKARIAK

- 2013ko maiatzaren 24an Manuel Ibáñez Fernandez jaunak, ARISUTAGO S.L.-ren izenean, baimena eskatu du Usurbilgo Igarako bidean dagoen zubia zabaltzeko.
- Ingurumenari dagokionez, 2012k-02-08 an aurkeztutako Hirigintza Kontsultari besteak beste, 2012/0125 Alkatearen Dekretu bidez, hurrengo baldintzak bete behar zituela azaldu zitzaion:
 - “UR AGENTZIAREN BALDINTZEN BETETZEA; Zubiaren handitze aukera onargarria izan dadin, beti ere URA Ur Agentziaren baldintza izan beharko du eta beraz, URA-ren eskaerak justifikatu beharko du zubiaren handitzea.
 - USURBILGO ARAU SUBSIDIARIOAK; Ezinbestean bete beharko dira Arau Subsidiarioetan ezarritakoak, 71. artikuluan ezartzen dena, besteren artean ;
 - “71. artikulua; (...) Ibilgunetako uraren joan-etorrian nolabaiteko aldaketa eragin dezaketen jardueri ekin aurretik (betelanak, zubiak eta abar.) jarduera horien ondorio hidraulikoak eta ingurumen arlokoak aztertu beharko dira, eta Ur Zuzendaritzan tramitatu ondoren, arauzko baimenak lortu beharko dira.”
 - BIODIBERTSITATEA ETA NATUR-BALIABIDEAK; Usurbilgo Arau Subsidiarioen Testu Bateraginaren 1.4. planuan zehazten den bezala, interbentzioa proposatzen den lekua “Interes naturalistikoko guneen ertzak” bezala bereizia dago eta horrekin batera “Hegoaldeko zuhaitz-igela ugalketa leku berriak” topatzen dira bertan. Hau dela-eta, ezinbestean aztertu beharko da zubiaren handitzeak izan dezakeen ingurumen-inpaktua eta horrek baldintzatuko du, besteren artean, interbentzioaren bideragarritasuna. Gaiaren inguruan Usurbilgo Arau Subsidiarioen Testu Bateraginak ezarritako bete beharko da, besteren artean, 57. artikulua.
- 2013ko irailak 10ean txostena izenpetzen duen teknikariak txostena igorri zuen, ibai ertzeko ertzeko, eta erreko faunarengan izango zuen eragina zehazteko eskatuz.
- 2013ko urriak 7an interesatuak eskatutakoari erantzunez dokumentazio osagarria aurkeztu du.
- 2014ko urtarrilak 20an ur agentziaren idatzia jasotzen da, obretarako baimena emanez.



Usurbilgo Udala



TXOSTENA

Aurkeztutako dokumentazio osagarria aztertuta, zehaztuta geratzen dira hartuko diren neurriak, Eta era berean aurrekontuan aintzat hartzen dira, beraz ALDEKO txostena igortzen da.

Usurbilen, 2014ko otsailaren 18an.
UDAL INGURUMEN ETA NEKAZARITZA TEKNIKARIA
Izta.: Ibon Goikoetxea Retegi

Uraren Euskal Agentziak, bertako Zuzendari Nagusiak 2013ko abenduaren 17an emanadako Ebazpenaren kopia helarazi du, ARISUTAGO, S.L.-ri Donostiako udalerrian (Gipuzkoa), Igarako kanpina eraikitzeke proiektua, sarbiderako zubien zabaltzeak barne, Urteta eta Gaztandegi errekaetako polizi eremuan lanak egiteko baimena ematen diona. Hitzez hitz, honela dio baimenak:

Ref./Erref.: AO-G-2013-0122

EBAZPENA 2013KO ABENDUAREN 17KOA, URAREN EUSKAL AGENTZIAKO ZUZENDARI NAGUSIARENA, ARISUTAGO, S.L.-ARI BAIMENA EMANAZ DONOSTIAKO UDALERRIAN (GIPUZKOA), IGARAKO KANPINA ERAIKITZEKO PROIEKTUAREN LANAK EGIN AHAL IZATEKO, SARBIDERAKO ZUBIEN ZABALTZEAK BARNE ETA URTETA ETA GAZTANDEGI ERREKASTOEN POLIZI EREMUAN

GERTAKARIAK

1. 1996/03/12an sarrera izan zuen Eusko Jaurlaritzako Garraio Departamentuko Gipuzkoako Uren Lurralde Zerbitzuan, Juan Carlos Ariztizabalen baimen eskariak, ARISUTAGO, S.Lren izenean, Donostiako udalerrian, Igara errekaetako erreka adar baten ezker aldean, Tennis-Klub batentzako lursailaren lur berdinketa lanak egin ahal izateko. Dagokion baimen espedientea izapidetuta, A-O-G-2010-0319, hau geldituta geratu zen jendaurrean jarri eta gero 1997/08/14ko GAO, 153. alean argitaratuaz. Hala ere, lur berdinketa lanak bai bukatu zirela, eta baita errekaetako ezker ertzeko bideraketa harri-lubeta baten eraiketa lanak, lur berdinketaren ur beherako zatia eusteko.
2. 2011/08/12an sarrera izan du Uraren Euskal Agentziako Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoan, Igara Kanpinera sarbide berri bat emateko Gaztandegi errekaetako gainetik zubi bat egin ahal izateko aukerari buruzko Antonio Maestre Alcacerren kontsultak. Kanping hau, aurrez ARISUTAGO, S.L enpresak Tennis Klubarentzat egindako zabalgunean jartzea aurreikusten zen, "Igarako Kanpinaren Plan Berezia" jaso.
3. 2011/09/15ean zubi horri buruzko aurkako txostena igortzen da Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegotik. Horrez gain, Kanpinako azpiegitura desberdinek Urteta eta Gaztandegi errekaetako mantendu beharreko distantziak ere adierazten ziren, Ibaierako LAPak ezartzen dituenak (C(J)-G- 2011-0177).



Usurbilgo Udala

4. 2011/09/29an dokumentazio gehigarria aurkeztu eta gero Antonio Maestre Alcacerrek, 2011/10/04ean Igarako Kanpinaren Plan Bereziari buruzko aldeko txostena igortzen da. 2011/10/14ean honen kopia Donostiako Udalari bidali zitzaion.
5. 2012/04/30ean, URAk txostena egin zezan, Igarako Kanpinaren Plan Bereziaren Hasierako Onespina bidali zuen Donostiako Udalak, 2012ko martxoan Antonio Maestre Alcacerrek idatzitakoa eta 2012ko urtarrilean Ekolurrek idatzitako Ingurumenaren Gaineko Eraginaren Baterako Ebaluazioaren dokumentua jasotzen duena.
6. Espedientean, URAko Plangintza eta Obra Zuzendaritzako hurrengo txostenak jasoak daude: 2012/09/17ko Igarako Kanpinaren Plan Bereziari buruzkoa, eta horren behin betiko onarpenerako dokumentuaren 2012/11/26ko txostena.
7. 2013/09/17an, erreferentziako lanak egin ahal izateko baimena lortzeko espedientea hasteko eskaera, eta horretarako beharrezko agiriak aurkeztu ditu Antonio Maestre Alcacer-ek, ARISUTAGO, S.L. enpresaren izenean, Euskal Agentziako Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoan. "Igarako Kanpinaren proiektua" eta "Igarako sarbidearen zubia handitzeko proiektua" aurkezten dina eskaerarekin batera, Antonio Maestre Alcacerrek 2013ko maiatzean eta BIDEIN. S.Lk 2013ko apirilean idatziak, hurrenez hurren.
8. Eskaera jendaurrean jarri zen 2013ko irailaren 27ko GA0 185. alean argitaratuz, eta epe horretan ez zen alegaziorik aurkeztu.
9. Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoak 2013/12/10ean eskatutako obren baimena ematearen aldeko txostena egin du txosten horretan jasotako zehaztapenak betetzeko baldintzapean.
10. 2013/12/10ean entzuna izateko izapidea eman zitzaion interesatuari, 10 egunetako epean inolako alegaziorik aurkeztu gabe iragan eta gero, espedientearen izapidetzearekin jarraitu da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

I) - FORMA ARLOKOAK

1.a.- Urei buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7. artikuluari eta honekin bat datozen gainerako artikuluei jarraiki, Uraren Euskal Agentziari dagokio ur-baliabideak antolatu eta kontzesioan ematea, bai eta Euskadiko Autonomia Erkidegoan oso-osorik kokatutako arroen jabari publiko hidraulikoa zein ur eta ibilguen polizia eremua erabili eta ustiatzeko baimenak ematea ere.

2.a.- Uraren Euskal Agentziaren Estatutuetoako (abenduariaren 18ko 240/2007 Dekretu bidez onartutakoak) 7.2.a) artikulua ezartzen duenaren arabera, Zuzendari Nagusiari dagokio baimen hau ematea.

II) ZUZENBIDE ETA GAUZATZE ARLOKOAK

1.a.- 1/2006 Legearen 30. Artikuluak ezartzen du kontzesioak eta baimenak urei buruzko legeek diotenaren arabera emango direla.



Usurbilgo Udala

2.a.- Obra egiteko eskatutako baimenak berekin dakar Urteta eta Gaztandegi erreken jabari publiko hidraulikoaren eta zaintza gunearen ohiko erabilera berezia, autonomia erkidegoaren barruan ibilgua duen Igara 2 ibaiaren isurikoarena, Urei buruzko Legearen (uztailaren 24ko BOEn argitaratu zen uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Dekretuak onartutako Testu Bategina) 6.b) artikuluan eta Jabari Publiko Hidraulikoko Erregelamendua onesten duen apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuak 9, 52-54, 78, 126 eta honekin bat datozenetan ezarritakoarekin bat ginez. Horren tutoretza Ur Agentziari dagokio.

3.- Baimentzeko eskatutako obrek jabari publiko hidraulikoko 20 metro koadro hartuko ditu, eta horri. Urei buruzko Legearen Testu Bategineko 112. artikuluan eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduko 284. enean aurreikusitako urteroko kanona ezartzea dagokio, horretarako honako balorazioan oinarrituko delarik:

ID Obra: AMPLIACION PUENTE ERROTABERRI

$$20.0 \text{ m}^2 \times 9,00 \text{ €/m}^2 \times 5/100 = 9.0 \text{ €}$$

4.a.- Eskabide honek gorago aipatutako arauetan jasotako aurreiritziak eta baldintzak betetzen ditu, eta beraz, jendearen interesa eta egindako proposamen-txostenean jasotako irizpideak kontuan izanda, bidezkoa da eskatutako baimena ematea.

Aurreko gertakari eta zuzenbideko oinarriari jarraiki eta, aipatutako xedapen araugileak eta oro har eta bereziki aplika daitezkeen gainerakoak aztertuta, honakoa,

EBATZI DUT

Lehena.- ARISUTAGO, S.L.-ri, B20543633 IFK duena, **baimena ematea** DONOSTIAKO UDALERRIAN (GIPUZKOA), IGARAKO KANPINA ERAIKITZEKO PROIEKTUAREN LANAK EGIN AHAL IZATEKO, SARBIDERAKO ZUBIEN ZABALTZEAK BARNE, URTETA ETA GAZTANDEGI ERREKASTOEN POLIZI EREMUAN, honako kokalekuan:

Lan ID-a: AMPLIACION PUENTE ERROTABERRI

Arroa: Igara-A

Eragindako korrontea: Igara 2

Aldea: Biak

U.T.M. ETRS89 koordenadak: X=579.408

U.T.M. ETRS89 koordenadak: Y=4.794.233

Arroaren azalera: 2,8 km²

Lekua: Donostia/San Sebastián

Udalerria: Donostia/San Sebastián

Lurralde Historikoa: Gipuzkoa

Ibilgurainoko distantzia: 0

Urak hartua izateko arriskua: BAI

UKPEG: EZ

LPS betetzea: BAI

BGL: EZ

11E: BAI

Planeamenduko aurre txostena: BAI (IAU2012-2269 Plan Bereziaren behin betiko onarpena)



Usurbilgo Udala



Lan ID-a: CAMPING IGARA

Arroa: Igara-A

Eragindako korrontea: Igara 2

Aldea: Urteta errekaostaren ezker aldea eta Gaztandegi errekaostaren eskuina.

U.T.M. ETRS89 koordenadak: X=578.013

U.T.M. ETRS89 koordenadak: Y=4.794.248

Arroaren azalera: Urteta 1,7 km² /Gaztandegi 1,1 km²

Lekua: Igeldo

Udalerria: Donostia/San Sebastián

Lurralde Historikoa: Gipuzkoa Ibilgurainoko distantzia:

15m Urak hartua izateko arriskua: EZ

LPS betetzea: BAI

BGL: EZ

KBE: EZ

HE: BAI

Planeamenduko aurre txostena: BAI (IAU-2012-2269 Plan Bereziaren behin betiko onarpena)

Donostiako Igara auzoan kanpin bat ezartzean datza ekintzak, aurrez zenbait kirol instalazioekin erabilitako partzela batean. Kanpin hau, Urteta errekaostaren ezker aldean eta Gaztandegi errekaostaren eskuinaldean kokatuko da. Igarako Industri poligonotik eta gaur eguneko bidetik bertara iristeko, bi zubi zabaltzen dira 5 metro zabaleraino; Errota Berri aldameneko zubia eta partzelarako sartzeko zubia. Kanpinean sortzen diren ur zikinak errekaostora isurtzen dira aurrez araztu eta gero tratamendu biologiko eta fisiko-kimikodun instalazio batean.

Bigarrena.- Horrelako baimenetarako Uren Legean, han garatzen duten xedapenetan eta orokorrean aplika daitezkeen guztietan, eta bereziki ondoren zerrendatzen direnetan, ezarritako eginbeharrak betetzeko baldintzapekoa da baimena:

BERARIAZ DAGOZKIONAK:

1. Lanak aurkeztutako agirien arabera egin beharko dira, baldin eta baimenaren baldintzak aldatzen ez badira.
2. Igarako Kanpinaren Plan Bereziak barne hartzen duen Ekolurrek idatzitako Ingurumenaren Gaineko Eraginaren Baterako Ebaluazioaren Azterketan jasotzen diren neurri konpentsatzaileak eta ingurumenaren babeserako eta zuzenketarako neurriak bete egin beharko dira.
3. Ibaiertzeko landaredia babestu eta errespetatuko da. Behin lanak amaituta erasandako guneen birlanaketa gauzatuko da sahasa eta haltza bezalako eápezie autoktonoen bitartez.
4. Ibai-ibilguaren ondoan 5 metroko zortasun-aldea irekita eta egoera naturalean utziko da, seinaleztatze zintarekin balizatuta, tarte horretan ibilgailuak pasa ez daitezzen, eta materialak edo beteketak, etxolak edo ontziak, itxiturak edo kutxetak pilatu ez daitezzen, ez aldi batean ez behinbehinean.
5. Kanpinerako sarbidea izango den zubiaren zabaltzea, ahal den neurrian ur beherantz egingo da. Edonola ere, ezker aldean



Usurbilgo Udala

dauden higadura arazoei aurre egiteko ibaiertza babesteko bioingenieria irtenbideak erabiliko dira, ibaiertzeko landaredia galera eta ondoko zatietan abiaduraren handipen larriegia ekiditeko.

6. Baimenaren titularrak **9 €** ordaindu beharko ditu **urtean** kanon gisa, jabari publiko hidraulikoa erabiltzeagatik. Kanon hau urtero berraztertu ahal izango da. Baimen hau ematean eta urtero mantentzean sortzen da kanon hori ordaintzeko betebeharra. Baimenaren izapidea edo, hala badagokio, bere izenean subrogatzen duena izango da tasa hau ordaintzeko beharra izango duen subjektu pasiboa. Agentziari subrogazio honen berri eman beharko zaio, dagokion aldaketa-espedientea izapide dezan.
7. Telefonoz abisatuko zaio urikuskatzaileari (943 024 800) lanak hasi aurretik.
8. Kanpinetik eratorriko diren ur zikinei dagokiola. VDP-G-2012-0844 espedientean ebatziko den ebazpeneko baldintzetara doitu beharko da.
9. Obrak amaitzeko 24 hilabeteko epea izango da, ebazpena jakinarazten den egunetik kontatzen hasita. Lanak epe barruan ez eginez gero, luzapen bakarra eskatu ahal izango da, ernandako epearen azken hilaren barruan. Lanak egin ezinaren arrazoiak, falta diren jarduerak eta lanak bukatzeko estimatzen den epea azalduz.
10. Baimen honen babesean ez da onartuko ibaietako urrik biltzea, ibaietara hondakin-urrik isurtzea ezta ibilguetan kokatutako ondasunen aprobetxamendurik egitea, aurretik administrazio baimenik izan gabe.

OROKORRAK:

1.a.- Baimenak idazpuruan aipatu den obra egiteko gaitzen du, baina berariaz adierazitako jabari publiko hidraulikoan eta zainza gunean eta ezarritako baldintzak betetzen badira baino ez du bide ematen.

2.a.- Obra garatzeko, jabari publiko hidraulikoan beharrezkoak diren lurak okupatzeko baimena ematen da. Dena den, lur horiek publikoak izaten jarraituko dute, eta bertan, ezin izango da baimendutakoa ez den erabilerarako baliatu, ezta eraikuntzarik ezarri ere. Honako baimen honek ez du jabari publiko hidraulikoa okupatu zein bertan erabilera edo aprobetxamendu berezi edo pribatiboa garatzeko gaitzen.

3.a.- Unen legerian aurreikusitako ondorioetarako baino ez da baimena ematen, eta horregatik, ez du zerikusirik beste organo batzuek eman dezaketen bestelako lizentzia, baimen edo administrazioaren esku hartzeko egintzekin.

4.a.- Baimen hau hirugarren baten kaltetan gabe eta jabetza-eskubidea babestuz ematen da, dauden zortasunak mantendu edo ordezkatzeko behar beste lan egin beharko direlarik. Libre utzi beharko da betiere ertzetako erabilera publikoko zortasuna. Bide-zortasunen



Usurbilgo Udala



bat jarri beharko balitz, behar hori egiaztatu eta Uren Euskal Agentziari eskatu beharko zaio.

5.a.- Ibaiko ura ez da inola ere uhertuko obrak agiten diren bitartean eta debekatuta dago hondakinak ibaira botatzea edo ertzetan uztea.

6.a.- Uraren Euskal Agentziak bere eskunnenak erabiliz, egoki irizten dituen bezainbat ikuskapen egin ahal izango ditu, baimendutako lanak eraikitzeko aldian zein garatzen ari diren bitartean.

7.a.- Obrak zati batean edo osorik ustiatu ahal izateko, aurrez, baimendutako obren amaierako ikuskapen-akta onetsi beharko da. Hortaz, Ur Agentziari obrak bukatu direla jakinarazi beharko zaio, zuzendaritza horrek azken ikuskapena egin dezan. Ikuskapena egindakóan, akta egingo du, eta bertan jasota geratuko da baldintzak eta ezar daitezkeen indarreko gainerako xedapenak bete direla.

8.a.- Baimena emateko, ibai arrantzaren eta arriskuan dauden espezien babespen arloan indarrean dauden xedapenak eta arrain hazkundearen arloan erakunde eskudunak ezarritako berariazko aginduak bote behar dira, eta aginduak betearazteaz erakunde hori arduratuko da.

9.a.- Baimen honen inguruan edozein aldaketa egin ahal izateko, Uraren Euskal Agentziaren oniritzia beharko da. Baimenaren pertsona edo erakunde titularrak berak ordainduta egin bel-riarko ditu aldaketak, eskuduntza duen erakundeak. Agentziaren eskuduntza eremuan ibilguan obra egiteko beharrezko zorgunea ahalbidetzeko.

10.a.- Titularrak baimenean eta aurreikusitako legezko balizko egoeretan ezarritako baldintzaren bat bate ezean, Uraren Euskal Agentziak arrazoitutako ebazpen bidez baliogabetu ahal izango du baimen hau, aurrez interesatuari audientzia emanda.

11.a.- Baimenaren pertsona edo erakunde titularrak, husteko ohiko egoeretan utzi beharko du jarduketak hartzen duen eremua, baita baliogabetzen bada ere, eta eginbehar hau beteko dela ziurtatzeko behar beste neurri hartu ahal izango dira.

Hirugarrena.- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 58. artikuluan ezarritakoa betez, interesatuei ebazpen hau jakinarazteko agindua ematea.

Azken Xedapenak.

Lehena.- 1/2006 Legearen, ekainaren 23koa eta urei buruzkoa, 6.4 artikuluan xedatutakoa jarraituz, Ebazpen honen aurka gorako errekurtoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen eta Lurralde Politika sailburuaren aurrean. Horretarako, HILABETE BATEKO epea utziko da, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Bigarrena.- Jabari publiko hidraulikoaren erabilpen Kanona zeneko baldintzari dagokionez, izaera ekonomiko-administratiboa duenez,



Usurbilgo Udala



aukerako berrazterze-errekurtsoa jarri ahal izango da Uraren Euskal Agentziaren aurrean, edo bestela, erreklamazio ekonomiko-administratiboa, HILABETEKO epean, ebazpen hau jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Erakunde honek "Euskadiko Ekonomia-Arduralaritzako Epaitegiari" igorriko dio erreklamazio hori.

Hirugarrena.- Ebazpen honek baimeneskatzaileari jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abenduaren 17a

URAREN EUSKAL AGENTZIAKO ZUZENDARI NAGUSIA
Sin.: Iñigo Ansola Kareaga

Gauzak horrela, udal teknikarien txostenak eta Ur Agentziaren baimena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: ARISUTAGO, S.L. enpresaren ordezkartzan diharduen MANUEL IBÁÑEZ FERNÁNDEZ jaunak, Igarako Gaztanbide erreka zubia haunditzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- BIDEIN, S.L. ingeniarietzako Cesar Gabiola Urruticocoechea ingeniariak 2013ko apirilean idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udaleko arkitektoak eta ingurumen teknikariak bere txostenetan eta Ur Agentziak emandako ebazpenean ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- Egikaritze proiektuak eta baita obralaneak ere, indarrean den araudia bete beharko dute ezinbestean.
- OBREN EGIKARITZAK EREMUAN SOR DEZAKEEN ERAGINA: Beti ere, inguruneko baldintzak errespetatu eta mantendu beharko dira, eta kalterik sortuz gero, egoera leheneratu beharko du obren eragileak, kostuak bere gain hartuaz, ezinbestean.
- LURREN OKUPAZIOA: lursail publikoen okupaziorako dagokion baimena lortu beharko da (udal aparejadorea) eta gainontzean, lursail pribatuak balira ohartarazten da, 2/2006 Lurzoruaren Legearen 211. artikuluari jarraituz; *“Lizentziak, beti, jabetze-eskubidea kontuan izan gabe eta hirugarrenei kalterik eragin gabe emango dira.”*
- **Ingurumenaren babesa.** Cesar Gabiola Urruticocoechea ingeniariak 2013ko urriaren 3an ingurumena babesteko idatzitako 11. eranskinean jasotako neurriak beteko dira. Ezinbestean, Usurbilgo Arau Subsidiarioen Testu Bateraginak ezarritako bete beharko dela, besteren artean, 57. artikulua.
- Udaltzaingoak adierazi bezala, obrak hasi aurretik Erriko-etxe baserriko bizilagunei jakinaraziko zaie obrek iraungo duten epea jakinaraziz.



Usurbilgo Udala



- Obrak hasi aurretik **ZUINKETA AKTA** izenpetu beharko da udal aparejadorearekin.
- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
 - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete obra baimena jasotzen denetik.
 - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obraren egikaritza epe gehiengoa: zuinketa akta izenpetzen denetik urtebete.
- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
 1. Obra lanen lizentziaren edo lizentzien kopia.
 2. Obren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagokion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.

Horrekin batera CTE betetzen duela ziurtatuko duen agiria aurkeztuko da, Zuzendari Teknikoak zigilaturik eta Kolegioan bisaturik.
 3. Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.

1/200 edo 1/500 eskaladun udal kartografiaren gainean, lur zatiaren behin betiko egoeraren planoak ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzazko obra lanak bertan jasoaz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.
 4. Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 cm. takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozela adieraziz.
 5. Obralanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberrako segurtasun neurriak beteko dira.
 - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.



Usurbilgo Udala



3.- MALCOM TOBY HOWICK JAUNAK, ALPERROBURU KALEA 2 BEHEAN EZARRITAKO HIZKUNTZA ESKOLARI IREKIERA BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.07/2013-0059

MALCOM TOBY HOWICK jaunak, Alperroburu kalea 2 behean ezarritako hizkuntza eskolaren irekiera baimena eskatzen du.

ESPEDIENTE ZKIA: HZ.07/2013-0059
ESKATZAILEA: MALCOM TOBY HOWICK
JARDUERA MOTA: Hizkuntza eskola
NON KOKATUA: Alperroburu kalea 2 behea – Usurbil

AURREKARIAK

2013ko urtarrilaren 28an, 352 sarrera zenbakiarekin, jarduera sailkatuaren aurretiazko komunikazioa aurkeztu zuen udalean, Ignacio Luis Larrañaga arkitekto teknikoak idatzitako jarduera proiektuarekin batera.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2013ko uztailaren 26an, Alperroburu kalea 2 behean hizkuntza eskola jartzeko obretako udal baimena eman zion MALCOM TOBY HOWICK jaunari.

IREKIERA BAIMENA

Orain berriz, MALCOM TOBY HOWICK jaunak, ezarritako jardueraren irekiera baimena eskatu du.

Eskaera aztertu eta dagokion ikuskapen bisitaldia egin ostean, udal aparejadoreak, Felix Aizpurua Arzallusek, ondoko txostena eman du:

ESKAERA: JARDUERA EZARTZEKO ETA OBRETARAKO BAIMENA
JARDUERA: HIZKUNTZA ESKOLA
ESKATZAILEA: MALCOM TOBY HOWICK
KOKALEKUA: ALPERROBURU KALEA 2 BEHEA
ESP. ZENB.: HZ.07/2013-0059

AURREKARIAK

2013-01-28an Alperroburu kalea 2 behean, hizkuntzen eskola jarduera ezartzeko lokalean obrak egiteko eta irekitzeko baimena eskatzen zuen Malcom Toby Howick jauna.

2013-05-21an dokumentazio osagarria aurkeztu behar zuela esanaz, idatzia bidali zen.

2013-12-27an irekiera baimena eskatzen du.

TXOSTENA



Usurbilgo Udala



Alperroburu kalea 2 behean, hizkuntzen eskola jadueraren irekiera baimena eskatzen du Malcom Toby Howick jaunak.

Alperroburu kalea 2 eraikuntza AASSetako A-31 (C/SE) ATXEGALDE eremuan kokatzen da eta honela dio, besteen artean, eramuaren ezaugarriaren fitxak:

1. IRIZPIDE ETA HELBURUAK

Dagoen eraikuntza finkatzen da.

2. ERABILERAK

Goiko solairuetako erabilera egoitzazkoa izango da eta merkataritza edo garaje eta/edo biltegi txikia goiko solairuetan.

Bizitzen kopurua: 189 UN

Obrako kitapena 15.899,04 €da.

1998ko otsailaren 27ko Euskal Herriko ingurugiroa babesteko Lege Orokorreko 59-2 eta 61-2 artikuluen arabera, proiektuko baldintzak osatu diren egiaztatzeko, ikuskpena burutu da.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa aurkeztu denez eta Udalak eskatutako neurri zuzentzaileak eta baldintzak osatu dituenez, proposatzen dut eskatzaileari IREKITZEKO BAIMENA EMATEA.

2014ko otsailaren 11an
Udal aparejadorea
Felix Aizpurua

Eskaria kontutan hartuz eta udal aparejadorearen txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: MALCOM TOBY HOWICK jaunak, Alperroburu kalea 2 behean ezarritako hizkuntza eskolari, IREKIERA baimena ematea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaitzari ematea.

4.- KALE NAGUSIA 3 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN ORDEZKARITZAN DIHARDUEN ELISABET LOPEZ LANDA ANDREARI, KALE NAGUSIA 3 ETXEKO ATARIAN IRISGARRITASUN BALDINTZAK HOBETZEKO ARRAPALA EGITEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2014-0052

KALE NAGUSIA 3 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN (IFK: H-20401022) ordezkartzan diharduen Elisabet Lopez Landa andreak, Kale Nagusia 3 etxe atarian irrisgarritasun baldintzak hobetzeko arranga egiteko udal baimena eskatu du.

AURREKARIAK



Usurbilgo Udala



2013ko abenduaren 30ean Ivan Perez Ubriz jaunak, Kale Nagusia 3 etxeko atarian arrapala jartzearen inguruan hirigintza kontsulta egin zuen.

2014ko urtarrilaren 9an, Alkateak, 2014/0007 dekretuaren bidez, ondoko erantzuna eman zion:

DEKRETUA

MERTXE AIZPURUA ARZALLUS andereak, **Usurbilgo Udaleko Alkateak**, Toki-Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1.985ko Legeko 21.1. atalean xedatutakoaren arabera, honako hau

IKUSIRIK

Esp. Zenbakia: HZ.13/2013-0573

IVAN PEREZ UBRIZ jaunak Kale Nagusia 3 etxeko portalean arrapala jartzearen inguruan hirigintza kontsulta egin du.

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkunek, eskaera aztertu ostean ondoko txostena eman du:

EE2014_13_001

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari
HIRIGINTZA KONSULTA
KALE NAGUSIA 3 ETXeko ATARIAN ARRAPALA JARTZEAREN
INGURUAN HIRIGINTZA KONSULTARI TXOSTENA

KOKAPENA: Kale Nagusia 3, Usurbil
ESKAERA DATA: 2013ko abenduaren 30a
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.13/2013-0573

AURREKARIAK

- 2013ko abenduaren 30ean Ivan Perez Ubriz jaunak hirigintza kontsulta egin du.

TXOSTENA

Ivan Perez Ubriz jaunak hirigintza kontsulta egin du, Kale Nagusia 3ko portalean arrapala ezartzearen inguruan. Horretarako aurkeztu den dokumentazioa da: eskaera orria eta bi planu. Dokumentazioa aurkeztu eta bertaratzea egin ostean, esan daiteke, aurrez badagoen eraikinak izanik, 68/2000 Dekretuak V. Eranskinean ezarritako baldintzak bete beharko dira, salbuespen modura, irisgarritasun baldintzak lortzeko. Aipatu araudiari jarraituz, %12ko malda eta 3m baino luzera gutxiagoko arrapala tramuak onargarriak dira, zabalera gutxienekoa 0,9m-koa izanik.

Dagoeneko eraikita dauden etxebizitza-atarteetan, irisgarritasun baldintzak betetzeko neurriak hartzeko orduan, zoru publikoa edota erabilera publikoa duten guneeetan eragiten ez duten irtenbideak hobesten eta lehenesten dira. Kasu honetan, bertaratzean ikusi da ez dela posible eraikinaren beraren egitura eta konfigurazioagatik, igogailura iristeko egin beharreko arrapala tramu guztiak atarte barruan egitea eta horrexegatik, onargarria ikusten da kasu zehatz honetan kanpo eremuan eskuhartzea. Halere aurkeztu den proposamenean



Usurbilgo Udala



zuzenketaren bat egin beharra dago: horrela, ikusi da, **posible dela** atarte barruan proposatu den **arrapalaz gain, beste arrapal tramu bat egitea, ate aurrean 1,1m-ko luzera eta %12ko maldarekin (zabalera atartearena). Aipatu arrapala tramu berri hori eginaz, kanpoan egin nahi den arrapala 3m-koa izan ordez, 1,9m-koa izatea lortzen da, erabilera publikodun gunean gutxiago eraginaz.**

Egokitzapen obrak egikaritzeko, obra baimena lortu beharko da, aurrez dagokion proiektu teknikoa Udalean aurkeztuz.

Beraz, aurkeztu proposamenaren ALDEKO txostena idazten zaio, beti ere, goian aipatu baldintzak betetzen diren artean.

Usurbilen, 2014o urtarrilaren 7an
UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkue

Eskaria kontutan hartuz eta udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren,

ERABAKI DUT

LEHENDABIZI: IVAN PEREZ UBRIZ jaunak egindako hirigintza kontsultari udal arkitektoak bere txostenean ezarritakoaren arabera erantzutea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri IVAN PEREZ UBRIZ jaunari eta Kontuhartzaitzari ematea.

OINARRIZKO ETA EXEKUZIO PROIEKTUA

Orain berriz, KALE NAGUSIA 3 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN (IFK: H-20401022) ordezkaritzan diharduen Elisabet Lopez Landa andereak, Kale Nagusia 3 etxeke atarian irrisgarritasun baldintzak hobetzeko arranja egiteko Oinarrizko eta Exekuzio Proiektua aurkeztearekin batera, obrak exekutatzeko udal baimena eskatu du.

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, eskaera eta aurkeztutako Proiektua aztertu ostean ondoko txostena eman du:

EE2014_04_009

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari
HIRIGINTZA KONTSULTA
KALE NAGUSIA 3 ATARIAN IRISGARRITASUN BALDINTZAK
BETETZEKO OBRA BAIMEN ESKAERARI TXOSTENA

KOKAPENA: Kale Nagusia 3, Usurbil
ESKAERA DATA; 2014ko otsailaren 19a.
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ04/2014-052

AURREKARIAK



Usurbilgo Udala

- 2014ko otsailaren 19an Elisabet Lopez Landa andereak obra baimen eskaera egin du, Kale Nagusia 3ko atarian arrapala egin eta irisgarritasun baldintzak betetzeko.

Erlazionatuak: HZ.13/2013-0573

- 2013ko abenduaren 30ean Ivan Perez Ubriz jaunak hirigintza kontsulta egin du.
- 2014ko urtarrilaren 7an udal arkitektoak aldeko txostena egin zuen, honakoa gaineratuz:

“aurrez badagoen eraikinak izanik, 68/2000 Dekretuak V. Eranskinean ezarritako baldintzak bete beharko dira, salbuespen modura, irisgarritasun baldintzak lortzeko. Aipatu araudiari jarraituz, %12ko maldala eta 3m baino luzera gutxiagoko arrapala tramuak onargarriak dira, zabalera gutxienekoa 0,9m-koa izanik.

Dagoeneko eraikita dauden etxebizitza-atarteetan, irisgarritasun baldintzak betetzeko neurriak hartzeko orduan, zoru publikoa edota erabilera publikoa duten guneetan eragiten ez duten irtenbideak hobesten eta lehenesten dira. Kasu honetan, bertaratzean ikusi da ez dela posible eraikinaren beraren egitura eta konfigurazioagatik, igogailura iristeko egin beharreko arrapala tramu guztiak atarte barruan egitea eta horrexegatik, onargarria ikusten da kasu zehatz honetan kanpo eremuan eskuhartzea. Halere aurkeztu den proposamenean zuzenketaren bat egin beharra dago: horrela, ikusi da, posible dela atarte barruan proposatu den arrapalaz gain, beste arrapal tramu bat egitea, ate aurrean 1,1m-ko luzera eta %12ko maldarekin (zabalera atartearena). Aipatu arrapala tramu berri hori eginaz, kanpoan egin nahi den arrapala 3m-koa izan ordez, 1,9m-koa izatea lortzen da, erabilera publikodun gunean gutxiago eraginaz.

Egokitzapen obrak egikaritzeko, obra baimena lortu beharko da, aurrez dagokion proiektu teknikoaren Udalean aurkeztuz. “

TXOSTENA

Elisabet Lopez Landa andereak obra baimen eskaera egin du Usurbilgo Udalean Kale Nagusia 3ko atarian irisgarritasun baldintzak betetzeko. Eskaera orriarekin batera aurkeztu du Oinarrizko eta Exekuzio proiektua, dagokion teknikariak izenpetua (arkitektoa) eta Elkargo Ofizialak ikus-onetsia (COAVN 2014-02-12). Proiektuak barneratzen ditu; memoria, planuak, aurrekontua, kalitatearen kontrolerako egitasmoa, hondakinen kudeaketarako azterlana, eta Segurtasun eta Osasun Oinarrizko Azterlana.

Dokumentazioa aurkeztu ostean honakoa esan daiteke:

- IRISGARRITASUN ARAUDIAREN BETETZEA: Proiektuak 2014ko urtarrilaren 7an behean izenpetzen duen teknikariak hirigintza kontsultari erantzunaz emandako txostenean ezartzen ziren baldintzak betetzen ditu eta ondorioz, ontzat hartzen da. Edonola, obra egikaritzan ere Iriagarritasun araudiak ezarritako baldintzak eta neurriak bete beharko ditu.
- DTE-DB-SU: Eskubarandek DB-SU atalak ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.



Usurbilgo Udala



ONDORIOAK

Goian esandakoari jarraituz, Kale Nagusia 3ko atarian irisgarritasun baldintzak betetzeko obra baimen eskaerari ALDEKO txostena idazten zaio, aipatu baldintzekin.

Usurbilen, 2014ko otsailaren 19an.
UDAL ARKITEKTOA Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: KALE NAGUSIA 3 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN (IFK: H-20401022) ordezkartzan diharduen Elisabet Lopez Landa andereari, Kale Nagusia 3 etxe atarian irisgarritasun baldintzak hobetzeko arrapala egiteko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- Luis Azqueta Encio arkitektoak 2014ko otsailean idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal arkitektoak beren txostenean ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- 68/2000 Dekretuak V. Eranskinean ezarritako baldintzak bete beharko dira.
- HONDAKINEN KUDEAKETARAKO ARAUDIA. Ezinbestean bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretuak.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
 - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obraren egikaritze epe gehiengoa: urte 1.
- LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA: Obren egikaritzan zehar lurzoru publikoa okupatu behar bada (puntu garbiarekin, adibidez), berariazko baimena lortu beharko da.
- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- Behin obrak bukatu ostean, Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
 - Obra lanen lizentziaren edo lizentzien kopia.
 - Obren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagokion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek



Usurbilgo Udala



lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.

Horrekin batera CTE betetzen duela ziurtatuko duen agiria aurkeztuko da, Zuzendari Teknikoak zigilaturik eta Kolegioan bisaturik.

- Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz. 1/200 edo 1/500 eskaladun udal kartografiaren gainean, lur zatiaren behin betiko egoeraren planoak ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzako obra lanak bertan jasoaz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.
 - Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 cm. takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozeela adieraziz.
 - Obralanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.
 - Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak igogailua funtzionamenduan jartzeko baimen ziurtagiria.
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberako segurtasun neurriak beteko dira.
 - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

5.- 2013. URTEAN GIZARTE ZERBITZUEN ARLOAN EGITASMOAK GARATZEKO DIRU-LAGUNTZEN BIGARREN ZATIA ORDAINTZEA HAINBAT TALDERI.

Espedienteak:

| | | | |
|----------------|-------------------|---|-------------------|
| AECC | (GZ.29/2013-0007) | BIKARTE | (GZ.29/2013-0016) |
| AGIFES | (GZ.29/2013-0011) | GIPUZK. ITXAROPEN TELEF. | (GZ.29/2013-0012) |
| AGIPASE | (GZ.29/2013-0005) | IZAN FUNDAZIOA | (GZ.29/2013-0008) |



Usurbilgo Udala



ATECE (GZ.29/2013-0006)

ORTZADAR (GZ.29/2013-0004)

Ikusirik

2013ko otsailaren 8an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2013. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko diru-laguntzen oinarriak argitaratu ziren, eskaerak aurkezteko hogeit eguneko epea emanez, hau 2013ko martxoaren 4an bukatu zelarik.

Epea amaitu ondoren, guztira 14 diru-laguntza eskaera jaso ziren.

Hori horrela, 2013ko apirilaren 18an egindako Osasun eta Gizarte Zerbitzuak batzorde informatiboan, 2013. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko diru-laguntzen banaketa proposamenaren berri eman zen.

Ondoren, 2013ko apirilaren 30eko bilkuran Diru laguntzen Batzorde Orokorrak, Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako teknikariaren txostena kontutan harturik, ebazpen-proposamena egin zuen eta interesatuei 10 eguneko epea eman zitzaizen alegazioak aurkezteko.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2013ko maiatzaren 31ean egindako bilkuran, 2013. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko diru-laguntzak onartu eta diru-laguntzaren lehen ordainketa (diru-laguntzaren erdia) egitea eta gainerako % 50a, emandako diru-laguntza justifikatu ondoren ordaintzea onartu zuen.

Laburtuz,

| TALDEAREN IZENA | IZENDATUA | 1. ORDAINKETA %50 | BIDERATU BEHARREKOA | OHARRAK |
|------------------------|------------|-------------------------|------------------------|--|
| AECC | 333,00 € | 166,50 € | 166,50 € | -- |
| AGIFES | 1.179,44 € | 589,72 € | 589,72 € | -- |
| AGIPASE | 846,12 € | 423,06 € | 423,06 € | -- |
| ATECE | 666,64 € | 333,32 € | 333,32 € | -- |
| BIKARTE | 1.051,24 € | 525,62 € | 525,62 € | -- |
| GIP. ITXAROPEN TEL. | 743,56 € | 371,78 € | 371,78 € | -- |
| IZAN FUNDAZIOA | 974,32 € | 487,16 € | 487,16 € | -- |
| ORTZADAR | 435,88 € | 217,94 € | - 217,94 € | Ez dute justifikaziorik aurkeztu |

Eta kontutan harturik



Usurbilgo Udala



- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituen.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008-07-01).
- 2013an Gizarte Zerbitzuen Arloan egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2013-02-08)

Hau guztia horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Honako eskatzaileei 2013. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeagatik onartu zitzaizen diru-laguntzaren bigarren zatia ordaintzea:

| Taldearen izena | Ordainketa |
|----------------------------|------------|
| AECC | 166,50 € |
| AGIFES | 589,72 € |
| AGIPASE | 423,06 € |
| ATECE | 333,32 € |
| BIKARTE | 525,62 € |
| GIP. ITXAROPEN TEL. | 371,78 € |
| IZAN FUNDAZIOA | 487,16 € |

Bigarrena : Honako eskatzaile honek, 2013. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeagatik onartu zitzaion diru-laguntzaren lehenengo zatiaren **itzulketa** egitea:

| Taldearen izena | Itzultzekoa |
|-----------------|-------------|
| ORTZADAR | 217,94 € |

Diru itzulketa jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean egin beharko da, Udalaren kontu zenbaki hauetakoren batean:

KUTXABANK: 2095 5069 07 1060024832

EUSKADIKO KUTXA: 3035 0140 30 1400900017

Hirugarrena: Gastua aurrekontu-partida honen kargura joango da: Diru-laguntza irekiak: Elkarteen asmoak: 1.8000.481.313.90.03.2013

Laugarrena: Interesatuei akordioaren berri emango zaie.

Bosgarrena: Kontu-hartzaitzari akordioaren berri emango zaio.



Usurbilgo Udala



Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, Alkate andreak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 8:40ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.